

18. artikulua.– Aniztasunari hezkuntza-erantzuna ematea hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

4.– **Hezkuntza-premiak goiz atzematea** oinarrizko jarduketa-printzipio bat da eskolaldiaren hasieratik. Irakasle eta hezkuntza-langile guztiek aktiboki parte hartu behar dute inklusiorako oztopoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin babestutako ikastetxe guztietan aplikatu behar dira.

23. artikulua.– Ebaluazio-prozesua gainbegiratzea.

2.– Era berean, Hezkuntzako Ikuskaritzak arreta berezia jarriko du berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak dituzten haurren **lan-plan indibidualizatuak** edo plan horiek egitea eskatzen duen edozein egoerak dakartzanak behar bezala prestatzen, kudeatzen eta ebaluatzen diren ikusteko.